

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KRIPANGO UDALA

Jendaurrean jartzea udalaren bideak eta landa bideak mantentzeko, hobetzeko eta kontserbatzeko 2022ko ekitaldiko erroldaren eta haren jakinarazpen kolektiboaren ordaintzeko epearen onespena

Arabako foru sektore publikoaren tasa eta prezio publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurrean jartzen dira honako hauek: errolda eta udalaren bideak eta landa bideak mantentzeko, hobetzeko eta kontserbatzeko tasa ordaindu behar dutenen 2022ko erroldaren zerrenda, zeina Alkatetzaren ebazpen bidez onetsi baitzen, 2022ko azaroaren 15ean.

Aipatutako errolda jendaurrean jarriko da udaletxeko idazkaritzan hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko, eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta alegazioak aurkezteko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko da.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertzeko errekursoa aurkeztu ahal izango zaio hura ebazteko eskumena duen organoari, hilabeteko epean, horiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

I. Ordaintzeko aldia. Borondatezko aldiko dirubilketa epea bi hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2022ko abenduaren 15etik 2023ko otsailaren 15era. Borondatezko dirubilketaren epea amaitutakoan, ordaindu gabeko kuotetarako betearazte aldia hasiko da automatikoki, eta berandutze interesak eta dagozkien errekarquak eskatuko dira, Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorren 26. eta 28. artikuluetan xedatutako moduan, bai eta, hala badagokio, premiamendu bideko kostuak ere. Bankuetan helbideratutako ordainketetarako, zergadunek ez dute inolako izapiderik egin beharko, eta bankuak 2022ko abenduaren 15ean egingo du zordunketa.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, zergadunei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria, jendea hartzeko orduetan, udalak Kutxabanken edo Euskadiko Kutxan duen konturen batean ordain dezaten, dirutan edo transferentzia bidez. Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Bestalde, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak, Kripango Udalean izapidetu beharko dira.

Epe hori igarota, premiamendu bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren xedatutako errekarqua gehituko zaie.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Kripan, 2022ko azaroaren 15a

Alkatea

JOSEBA FERNÁNDEZ CALLEJA